



◆ TXANTXANGORRI

San Silvestreko tiraldia bihar

Txantxangorrik antolatuta, San Silvestreko tiraldia izango da bihar, Santa Barbaran. Izen ematea: 15 euro bazkideek, 10:00etatik 11:30etara. ||

◆ FUTBOLA

Labaien Torneoa

Labaien Memoriala jokatuko dute bihar Zubipen, Hernanik, Realak eta Lengokoak taldeek. 15:30etan Real-Lengokoak; 16:30etan Hernani-Real; eta 17:30etan Hernani-Lengokoak. ||

❖ PORTU AUZOA

Rafafa magoaren emanaldia, gaur

Umeen gozamenerako, Rafafa magoak magia ikuskitzuna emango du gaur Portu Auzoan. Emanaldia Portuko auzo elkartearen izango da, arratsaldeko 18:00etan. ||

❖ GABONETAKO ORDUTEGIAK

Autobusak lehenago bukatuko dira bihar

Garayarreko autobus linea lehenago bukatuko da bihar gauean. Hernanitik Donostiara (G1) dijoan azkena 20:00etan aterako da, eta Donostiatik Hernanira (G1) etorriko dena 20:30etan. Andoaindik Donostiarako (G2) zerbitzua egiten duen azkeneko autobusa 19:45etan aterako da Andoaindik, eta 20:30etan Donostiatik. Ospitaletara (G3) joaten den autobusa berriz 20:00etan aterako da Andoaindik, eta 20:30etan Ospitaletatik. Azkenik, Astigarragatik Usurbilerako bidea egiten duen autobusa (E) 20:30etan irtengo da Astigarragatik eta 20:15etan Usurbildik. ||

Kiroldegia itxita, bihar eta etzi

Gabonak direla eta, kiroldegia itxita egongo da bai bihar eta baita etzi ere. ||

Hernaniko bost sagardok kalitatezko zigilua izango dute epe motzean: bostetik hiruk Kalitatezko Sagardo Marka izango dute, eta bik Eusko Labela. Azken aldian pil-pilean dagoen gaia da, eta Hernaniko Kronikak bien berri emango du. Gaurkoan Altzuetako Ibon Alkortak azalduko du Kalitatezko Sagardo Markaren helburua. Bihar Arantxa Eguzkitzak Eusko Labelarena.

IBON ALKORTA-Altzuetako sagardogilea eta Sagardo Mahaiako kidea:

«Marka duen sagardoak ziurtatua izango du kalitatea, garantia eta prestigioa»

HERNANIKO Alzueta, Zelaia eta Olaizola sagardotegiek Kalitatezko Sagardo Marka pribatu eta era berean kolektibo baten aldeko apostua egin dute, Gipuzkoako beste 11 sagardogilarekin batera. Hernaniko Kronikak Alzueta sagardotegiko Ibon Alkorta-ekin hitz egin du, Kalitatezko Marka berri honen nondik norakoak jakiteko asmoz.

Sagardogileak adierazi duenez, prozesua 2005garren urtean hasi zen. Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen zuzendariak elkartzen hasi ziren, sagardoaren munduan zeuden falta eta behar batzuk aztertze asmoz: «Orduko Eusko Jaurlaritzako Gobernuak pertsona bat jarri zuen elkarriketarako eta egutegia koordinatzeko, hau da, prozesua koordinatzeko. Orduan izen batzuk atera ziren, eta talde bat sortu zen pertsona horiekin, Sagardo Mahaiaren izeneko. Lanean hasi ginen, puntu ezberdinak aztertzen, eta normala den bezela, bakoitzak bere etxera jotzen zuen. Baina momentuero iritsi ginen adostasun batzuetara, eta erabakiak hartzen hasi ginen».

«Inflexio puntua: Eusko Jaurlaritzaren proposamena» Ibonek azaldu duenez, aurreko Gobernuak proposamena bat egin zuten hauteskundeetan aurretik, hau da Gobernuak aldatu aurretik,



Ibon Alkorta, Altzuetako sagardogilea.

orain bi urte eskas: «proposamen hori inflexio puntua izan zen. Hasiera batean, guztiok aho batez proposamena ez onartzea erabaki genuen, eta gu lantzen ari ginen proiektua aurrera eramatea erabaki genuen. Hortik aurrera, sagardogile batzuk Mahaia uztea erabaki zuten, eta Eusko Jaurlaritzaren proiektua aurrera eramatea».

«Bertako sagar eta sagastiekin konpromisoa» Sagardoaren Mahaiak hasieratik izan zuen garbi sagasti eta sagarraren kalitatea eta homologazioa landu behar zuela: «sagastien eta sagarraren homologazioarekin hasi ginen lanean, sagar onaren garantia bilatzea dugu helburu, produktioa haunditu eta mehoratzera iritsi nahi dugu. Momentuz hogeiki ekoizlekin egin

dute bat proiektuarekin, eta kurtsioak ere jaso dituzte. 2011rako gehiagok eman nahi dute izena. Guk beraiekin konpromisoa hartu dugu ekoizten duten sagar guztia erosiko dugula, baldintza onean».

«Kalitatezko sagardoa izango da, probak pasatakoa»

Marka izango duen sagardoak kalitatea ziurtatua izango duela adierazi du Ibonek: «proba enologikoak pasako ditu Fraisoren, zigilua izango du sagardo bakoitzak, legeak eskatzen duen guztia betetzen duela ziurtatzeko; ez da kimikoki ondo dagoen bakarrik begiratu, guztia izango da kontuan. Garantia duen sagardoa izango da, prestigioa izango duena».

Kaleratze eguna zehaztu gabe dute oraindik, baina ilusioz ari direla lanean azpimarratu du, eta epe motzean izango dela eskuragarri. ||

14 Sagardogile:

Alzueta (Hernani)
Zelaia (Hernani)
Olaizola (Hernani)
Zapiain (Astigarraga)
Alorre (Astigarraga)
Gartziategi (Astigarraga)
Gurutseta (Astigarraga)
Mina (Astigarraga)
Barkaiztegi (Martutene)
Begiristain (Ikaztegieta)
Egiluze (Errenteria)
Gaztañaga (Andoain)
Isastegi (Tolosa)
Sarasola (Asteasu)

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Aina

Eguneko menuak
Kuadrilako bazkariak
Karta

Egunero zabalik

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

Argitarapen honen laguntzaile:

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

mikel armendariz

proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

tripontzi taberna

Egunero Menuak

Kardaberaz, 11 tf: 943555724

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez**: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauetz**: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Hego-haizearen eraginpean egongo da eguraldia, gaur ere. Zeruain lainoak eta urdineak tartekatuko dira. Min.10° / Max.15°.

BIHAR Hego-haizeak joko du oraindik, baina aurreko egunetan baino ahulago ibiliko da. Lainoak ugariago izango dira. Min.11° / Max.14°.

BERTSOLATA



Judith Monterok eta Maialen Lujanbiok, 'Ornitorrinkus' aurkeztu zuten Bertsolataren barruan, asteartean.

Bertso eskolak web orri berria aurkeztuko du gaur: 'iraulio.com'

Hernaniko bertsoari buruz ikerketa lana egiten ari da Hernaniko bertso eskola. Lan horrek 4 zutabe ditu, eta horietako bat da web orria. Bestek dira: DVDa (gaur salgai izango da), Unitate Didaktikoak, eta Liburua.

BERTSOLATA aurrera dioa, eta bertso eta bertso artean, gaur, aurkezpen ekitaldia izango du Iraulio Panttalone bertso eskolak. Azken 3 urteetan egiten ari diren ikerketan lanaren berri emango dute, eta web orri berria erakutsiko dute: www.iraulio.com. Web orrialdeak biltzen ditu: *Hernani Bertsoan* ikerketa proiektua, Hernaniko bertso saioak, bertsolarien informazioa, bertso eskolako berriak, intraneta, blogak...

Aurkezpenean, bertso eskolako kideak izango dira, baita Marian Beitialarrangoitia alkatea ere, bertso ikerketa diruz laguntzen ari baita Hernaniko Udala, 3 urtez.

Ikerketa lanaren 4. ardatza
Hernani Bertsoan izeneko

ikerketa lanak 4 ardatz ditu, 4 lan. Horietako bat da web orrialdea, beste 3 lanak zabalteko, dibulgatzeko, erabiliko duten tresna. «DVDa, Liburua eta Unitate Didaktikoak jarriko ditugu web orrialdean. Lan handia dago egina, eta horren berri jendeari emateko ezinbesteko tresna iruditu zaigu web orrialdean».

DVDa egina dago, eta gaur salgai izango da Biterin. Unitate Didaktikoak ere eginak daude, eta Liburua egina izango dute, 2011 urtea bukatzerako.

Bertso eskola interneten
Iraulio.com web orriak, bertso eskolaren web orrialde ofiziala ere izan nahi du. Horregatik, bertso ikerketako lanez gain, bertso eskolako berriak

ere emango ditu, bertso saioei buruzko informazioa eta abar.

Bertsoa Gabonetan

BERTSOAK izango du lekua datozen egunetan ere:

-Bihar, Urte Zaharretako Erronda egingo dute, 17:15etan abiatuta, Gudarien Plazatik.

-Urtarrilaren 6an, urteroko Bertso Jaialdia, 19:00etan, Biterin: Bertsoan: Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Miren Amuriza, Unai Agirre, Iker Zubeldia eta Asier Azpiroz. Gai-jartzen: Amaia Otxotorena. Sarrerak salgai: Tripontzi eta Aralar tabernetan, 7 euroan.

-Urtarrilaren 8an, Bertso Afaria, Martindegiko Etxeberria sagardotegian: Jon Maia eta Sebastian Lizaso. Sarrerak salgai, Oialume tabernan, 30 euroan.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

PIO ARRIETA IZAGIRRE
Atzo hil zen, 85 urte zituela

Anai-arrebak, koinatu-koinatak eta ilobak

ARRIETA-IZAGIRRE SENDIA
TXIMISTANEKO FAMILIA

Hileta elizkizunak **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **18:00etan, Ereñotzuko SAN ANTONIO** parroki elizan.

Hernani-Ereñotzun, 2010eko abenduaren 30ean

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

PIO ARRIETA IZAGIRRE
(Tximistaneko osaba)

Bizitza atzo da,
ezin kenduko diguten lur bakarra.

SARATSAIN ALDEKO FAMILIA

Hernani-Ereñotzun, 2010eko abenduaren 30ean

PIO ARRIETA IZAGIRRE
Aittona, zuk egindako bidean loratuko dira gure urratsak.

BILOBAK: AITZOL ETA NAIA, URKO, IDOIA ETA OIER, ASIER ETA ARACELI, ARKAITZ, ENARA ETA OLAIA. BIRLOBA: ENEKO.

Hernani-Ereñotzun, 2010eko abenduaren 30ean

✚ **PIO ARRIETA IZAGIRRE**
- Goian Bego -

MUXARRA ELKARTEA
ETA
BASURDETAKO LAGUNAK

Hernani-Ereñotzun, 2010eko abenduaren 30ean

IRAGARKI MERKEAK

- Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lan egiteko eskaintzen da: sagardotegitan, ostalaritza... Harremanetarako: 617 630 528
- Pisu bat alokatzen dut Hernanin, Karmelo Labaka kalean. 2 gelakoa, kalefakzio indibidualarekin. Dotorea. 700 euro. Bankuko abala behar da. Tlf: 600609754
- Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jeiki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Enara Goikoetxea. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
- YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietza 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
- Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
- Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



Urte Berri On!

AUTOTALLERES SANTA BARBARA

HERNANI - 943551139

MEKANIKA ETA KARROZERIA

TURISMOAK - FURGONETAK - IBILGAILU INDUSTRIALA



PEUGEOT

ZERBITZU OFIZIALA

IBILGAILUEN SALMENTA

KM 0
BERRIAK
BIGARREN ESKUA